

ALSINA

NON gaude? Zer da hau? Jendearen joan-etorria, argi-pa-
nelak hormetan, etengabeko dei-hotsak, andre-gizon eta
haurren barbaroa, maletak, gurditxoak, zakar-ontziak eta
zakar-garbitzaileak, eserlekuak eta pasabideak... Ez deza-
gun igarkizunetara jolastu ordea: aireportu batean gaude.
Nongo aireportuan? Horrek ez du garrantzi handirik, bai-
na esan dezagun hala ere Ipar Amerikako aireportu batean
gaudela. Erraza genuke orain halako edo holako airepor-
tua dela esatea, sinesgarritasuna irabaziko luke gainera is-
torioak, kolorea erantsiko lioke kontakizunari, ñabartze
aberasgarri bat... Baina ez ote litzateke dena inpostura hu-
tsa, azken batean? Kontalaria bera inoiz Ipar Amerikako
aireportu batean izan ez bada, zer dio orain, New Yorken
gaudela esatea, edo Washington D.C.n, edo Chicagon edo
Los Angelesen? Esan dezagun, hortaz, Estatu Batuetako ai-
reportu batean gaudela, bestelako zehaztasunik gabe, zehaz-
tasunak ere iritsiko dira eta, zehaztu beharra dagoenean.

Aireportu batean beraz. Xehetasun hau gogoan har-
tzea komeni da, historia honetan zehar atzera-aurrera uga-
ri egingo baitugu, espazioan zehar ez ezik baita denboran
barrena ere, alde-aldietan hara eta hona. Baina galdu gabe.
Nahastu gabe, ahal dela. Hala, bada, segi dezagun zehaz-
tapenekin eta esan dezagun 1980ko egun bat dela Ipar

Amerikako aireportu horretan. Baita planeta osoko beste edozein lekutan ere, noski: 1980ko egun bat, ez edozein egun, jakina, egun jakin bat baizik. Axola al du orain egun zehatza jakiteak? Egia esan, ez: gure historiarako berdintsu da azaroaren 30a edo abenduaren 15a izatea. Urte hondarrean gaude nolanahi ere, abenduaren bueltan gutxi gorabehera.

Badauzkagu, bada, tokia eta eguna. Non eta noiz. Nor jakitea falta zaigu orain, jakina. Edozein historiak behar du bere protagonista, bere pertsonaia, bere heroia, bere sujeta. Berdin da nola deitzen diogun, ez dugu eztabaida teorikoetan sartu nahi. Gure historia honetako nor zentral hori, istorioko muina eta gunea, esan dezagun behingoz, andrazko bat da, emakume adin mugagaitzeko bat, ez oso zahar ez oso gaztea, hor nonbait berrogei bat urtekoa, bizkorregi ajaturiko emakume gazteagoa ala urteen joanari ongi eusten dion dama adintsuagoa ote den jakin ez badezakegu ere. Zertan gabiltza, ordea, irakurlea nahastu nahian? Guk sortu badugu emakume hori, guk eman nahi diogun adina izango du, geuk erantsi nahi diogun itxura, geuk ezarri gura diogun aiurri eta izaera. Esan dezagun, bada, bestelako txorakerietan denbora galtzen ibili gabe, 39 urte dituela, oraintxe bete berriak, eta xehetasun hau ez da aurrekoen antzera arbitrarioki eta nolanahika erabakitako zertzelada ganoragabea, baizik eta istorioaren funtsa bere oinarrian eta mami-mamian ukitzen duen datu noraezeko eta baitezpadakoa. Euskara normalagoan esanda, inportante eta nahitaezkoa.

Zergatik? Zer gertatu zen ba 1941eko abendu aldean emakume honen jaiotzarekin batean historia hau halako

modu sakonean baldintzatzeko eta bideratzeko? Nahikoa litzateke edozein urtekari edo entziklopedia zabaltzea, garai hartan hainbat gertakari gogor, gordin eta erabakigarri jazo zirela jakiteko; esate baterako, eta adibide bakarra aipatzearren, une hartantxe eraso zion Japoniako abiazio inperialak Estatu Batuetako itsas armadari Hawaii uhar-teetako Pearl Harbor basean, hegazkin-ontzi, destruktore eta bestelako guztiak ustekabean txikituz eta, gehiago dena, ordura arte aliatuen urruneko laguntzaile izandako Estatu Batuak gerran zuzen-zuzenean sarraraziz. Gertakari horrek, ordea, denik eta garrantzizkoena izanik ere, ez du zerikusi zuzenik gure historiarekin; bestelakoa da jaiotze-data horren muntaren arrazoa, eta barkatuko ahal gaitu irakurle prestuak xehetasun hori oraindik ere kontatzen ez badio-gu; istorio orok behar du bere erritmoa eta bere misterioa, eta gurean ere ez da komeni guztia behar baino lehenago argitzea; hortaz, izan ezazu egonarri pixka bat, arren, ibai bat, jira eta buelta franko egin arren, bere helburura iris-ten den bezala, istorio honek ere izango baitu bere jomuga, bere itsaso hondargabea.

Gatozen bada emakume honengana, oraindik ere ezer gutxi baitakigu haren gainean, adina ez bada. Begira die-zaiogun beraz arreta gehixeagoz, itxura hutsetik ere jakin baitaiteke hainbat datu, edo gutxienez sumatu, jakintzat jotako usteak erdia ustela ere izan ohi du eta. Zer nabar-mentzen da? Egia esan, deus gutxi: bere adinarena bezala-ko definigaiztasun lanbrotsua du bere itxurak ere: ilea ez luzea eta ez motza, ez ile-apaindegitik atera berria ez guz-tiz naturala; aurpegian ez du hazpegi bereziki markaturik, begi argiak agian, baina itzali samar geratzen dira armazoi

arineko betaurrekoen atzean; makillajea, doi-doia; arropa ere gaztetako freskotasunari agur egin baina dotoreziari eusten dionarena, pinpirin eta apaina baino areago diskretua, aireportu honetako giza aldra erraldoiaren erdian oharkabea pasatzeko modukoa.

Tira: gure irakurlearen pazientzia agortzeko puntuan egon liteke honezkero; izan ere, zertan gabilta ezer berezirik ez daukan emakume honekin gora eta behera? Zerbait izango du ba nabarmentzekoa, bestela ez genuen gure historiaren erdigunetzat hartuko, ez da hala? Bai horixe, arrazoa eman behar irakurleari; arrazoa ez ezik, informazio gehixeago ere hasiko gatzazkio ematen. Horra ba: emakume horrek ez du ezer apartekorik bere itxuran, bere eserlekuaren ondoko palmondo artifiziala bezain oharkabea egon liteke aireportuaren erdian, baina bere betaurrekoen atzeko begien sakonean begiratu ahal izanez gero, bere ama orain dela gutxi hil zaiola ikusiko genuke.

Datu inportantea da amaren heriotza hau, horrekintxe esan liteke hasi zela gure historia hau ere, ez horrenbeste gure emakumearen begien sakonean tristura itsatsirik gertatu delako, azken batean topiko hutsa izan liteke esaldi hori, erretorikaren amarru bat aurrez dakigun baina derrepentean eman nahi ez dugun informazio bat apurka-apurka helarazteko; orain axola duena hauxe da: ama hil zaiola gure emakumeari, eta horren ondorioz erabaki duela bidaia egitea.

Badakigu zerbait gehiago, erantsi dugu beste informazio pixka bat: bidaian doa emakumea, beraz ez dago aireportuan bertako langilea delako, ez inoren zain dagoelako; ez doa inor hemendik hara. Zergatik diogu ordea “hemen-dik”? Ia konturatu gabe atera zaigu hitza, idazketa ekintza

abstraktu, neutro, noiznahiko eta nonahikoa izanik ere beti baitago “hemen” bat, idazleari edo irakurleari edo biei dagokiena. Gure “hemen” hori hemen dago beraz, eta “han” Amerikan. Hortaz, irakurle ohartua dagoeneko ohartu da honetaz, hemendik hara ez baldin bada, handik hona etortzekoa izango da norbait; gure kasuan, delako andrazkoa.